



Asel Luzarraga | (Bilbo, 1971). Enpresa ikasketetan diplomaduna eta Euskal Filologian lizentziaduna da. Hainbat urtez irakasle lanetan ibili ostean, egun itzultzailea da. 2003. urtean *Hamaika ispilu ganbil* (Labayru) argitaratzeak eta VI. Igartza beka eskuratu izanak idazketa serio hartzera bultzatu zuten. Geroztik *Karonte* (Elkar, 2005), *Eleberria lantzeko gida* (Antton Irustarekin batera. EIE, 2005) eta *Mozorroaren xarma* (Erein, 2007) liburuak argitaratu ditu.

Asel Luzarraga

Abaraska



Azala eta bildumaren diseinua: Esteban Montorio

Argitaratzea:

Editorial Txalaparta E.M.

Navaz y Vides 1-2

78. Posta-kutxa

31300 Tafalla

NAFARROA

Tel. 948 70 39 34

Faxa 948 70 40 72

txalaparta@txalaparta.com

www.txalaparta.com

Lehenengo edizioa

Tafalla, 2008ko maiatza

Copyright

© Creative Commons:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5

© Txalapartak

Maketazioa

Monti

Inprimaketa

RGM

Aita Larramendi, 4

48012 Bilbo

ISBN

978-84-8136-518-4

Lege gordailua

BI-1.586-08



TABERNA HARK AMERIKAR ZAPORE jatorra zuen: haien historiaurreko *far west* estiloa gogorarazi nahi zuen egur estiloko plastikozko egitura, gurdi zahar baten gurpil erraldoia atearen gainean, atepak, jakina, film guztietan ikusi ditugun *saloon* horietakoen tankera-koak, teklarik ere ba ote zuen zalantza egiten nuen pianoa bazterrean... eta beste hamaika detailetxoren artean, haien Olinpoko jainko-jainkosa nagusien irudi erraldoiak, errege eta erregina: Elvis eta Marilyn; azken hau, zelan ez, *subway*ren haizeak altxatutako gona zuriari eutsiz. Nire familia berriaren senar jatorrak, hura dena oso gustuko izan ez arren, topikoen Amerikara ongietorria egin gura izan zidan, zelako herrira iritsia nintzen dudarik egin ez nezan. Alderik

IRAKURLEARI OHARRA: Liburu honetan, atal bakoitzaren izenburuaren aurrean zenbaki erromatar bat topatuko duzu. Zenbakien ordenak, ordea, ez dauka zerikusirik pertsonaiek istorioan daukaten hurrenkera logikoarekin, sortuak izan ziren hurrenkerarekin baizik. Beraz, ez ezazu pentsa idazleari burua nahastu zaiola (ez asko, behintzat).

onena, zalantzarik gabe, aire egokitua zeukan toki batean sartzea, aurreko gauean aireportutik kanpo oina jarri nuenetik bero sapa itogarria baikeneukan lagun. Holakoak ei ziren AEB, edo Estatu hura, behintzat: udan infernuko labea, neguan herioaren hats izoztua.

Ez zen ez hasiera txarra. *Jet-lag* delakoari aurre egiteko modurik onena, horri guztiari gantz dosi eder bat gehitzea. Horretan laguntzen etorri zitzailgun garaiko jantzi haietan borobiltasun estutu bi eskuzabal eskaintzen zizkigun zerbitzari gaztea. Hango irribarre ikasiek ez dute alferrik irabazi ospea mundu osoan. Lehen aukera nire fitxategi potoloa atera eta fitxa berri bat gehitzeko. Nire ostalariak kuriositatez begiratu zidan, hanburgesa ketsuaren aurrean besoak gurutzatuta. Artean gutxi ezagutzen genuen elkar, baina aste bi edukiko genituen horretarako. Zerbitzariari buruzko lerro batzuk idatzi, eta baztertu nuen koadernoan.

—Hau da AEBri buruz edozein europarrek duen irudia.

Andyk barre egin zuen.

—Ondo dakit, Alemania eta Frantziatik ibilia naiz, eta bart esan dizudan bezala, han gutaz uste duzuenaren ehuneko laurogeita hamar egia da. Horrexegatik ekarri zaitut hona, *rednecken* paradisura.

Artean ez nekien zer zen *redneck* delako bat, inguruan haien erakusketa ederra izan arren. Apurka-apurka hasi behar zen, eta espero nuen nik zaintzekotan etorri ziren nerabe guztiak arazo handirik gabe moldatuko zirela hurrengo hilabetean etxea izango zuten lekura. Nik, behintzat, Andyren ondoan ez

nuen zorte batere txarrik izan. Dead Kennedys gogo-ko duen amerikar batengandik ezin da ezer txarrik espero. Ez neritzon, ordea, gauza bera aurreko hamburgeresari. Baina zaborra jan behar denean onena zabor peto-petoea jatea denez gero, eskura nituen osagai guztiak erantsi nizkion: ketchup, ziapea, tabaskoa... Zorionez, amerikar garagardo guztiak Budweiser zapore gabeko hura bezalakoak ez direla erakutsi zidan nire lagun berriak. Atera zidatenaren izena ez nuen inoiz ikasi, *red* zela, etiketan indiar bat ageri zela, eta goxo-goxoa zela, besterik ez.

Dena girotzeko country musika iristen zen bazter guztietara, noski. Ez zen bereziki desatsegina, baina Andyk keinu adierazgarriak egiten zituen maiz. Halako batean, gainera, jatetxekoek han egoteko ordaindu baliote bezala, ia metro biko *cowboy* oso-osoa sartu zitzaigun: alkandora eta praka bakeroak, ezproiak baino falta ez zituzten larruzko botak, eta noski, kapela zuri dotorea. Mahai bateraino ibili, botak haren gainean ipini, eta irudia osatzeko falta zitzaiona ikusi nion orduan: gitarra. Gure herrixka bateko taberna batean abarkadun baserritarren bat txapela jantzita sartzerakoan, han zeudenek bezalaxe jokatu genukeen: gauza arruntagorik! Beraz, neu izan nintzen adi-adi begiratu nion bakarra, eta bigarrenez fitxategia ireki eta fitxa bat gehitu nion.

—Zer duzu hor? Bidaia kaieren bat? —galdetu zidan Andyk, bigarren honetan jakin-minari eutsi ezinik.

—Hori baino askoz gehiago.

Orduan jakin zuen Andyk, irakaslea ez ezik, idazlea ere banintzela. Edo idazle-nahia, ordurako tona

bat pisatzen zuen koaderno horretan gordetzen nituen apunteetatik harago ez bainuen ezer idatzita. Fitxategi hartan zegoen nire etorkizun guztia. Urteetan bildutako pertsonaiak eta egoerak, haien artean batzuk aukeratu eta bizia emateko zain. Baina benetako istorioak idazteko unea ez nuen inoiz ikusten, agian gordetzen nituen pertsonaiek merezi zuten kalitatezko lana egiteko gai izango ez ote nintzen beldurrez.

Nindoan tokira nindoala, ordea, fitxategia neurekin eroan eta inguruari adi jartzen nintzen. Bidean milaka pertsonarekin, milaka aurpegirekin gurutzatzen gara, eta haien guztien atzean milaka istorio txiki zein handi ezkututzen dira. Nire pasioa, beraz, aurpegi ezezagun haientzat istorioak asmatzea zen. Bakoitzarentzat orritxo bat baino ez nuen gordetzen, askotan lerro txiki batzuk: zelako itxura, zelako keinuak, zer lan eduki zezakeen, zer familia, eta, batez ere, bizitzan zer xede eta zer arazo. Zoritxarrez, ez nekien haiek guztiak zelan lotu eta istorio bakar batera ekarri. Agian haien artean hitz egiten zuten eta sortua zuten harremana; seguruenik nik baino hobeto zekiten zer bizipenek egiten zituzten kide, arerio, maitale, jazarle edo batek daki zenbat gauza. Nik, berriaz, ez nekien. Orriak behin baino gehiagotan birpatsatzen banituen ere, isilpean gordetzen zituzten harreman horiek, eta, beraz, ezin bizitzarik eman nik. Istorioei hasiera, eta beldurgarriena, bukaera eman beharko nizkieke, eta atzera bueltarik izango ez zuen bide batean sartzeko kemenik ez neukan. Eskubiderik ba ote neukan ere ez nekien. Demagun *cowboy* hura Tokioko *kogyaru* txolin haren ondora neramala. Bera,

zelan jakin gabe, Shibuya-ko izozki denda batean agertuko zen, izozkiak japoniar nesKentzat zein txoragarriak diren batere ideiarik izan barik, eta are okerrago, hango dendetan neska horri gustatzen zaizkion eta egunero aukeratzera ateratzen den soineko horiek zer garestiak diren jakin barik. Baina han egongo zen, eta horrek bere etorkizun guztia markatuko zuen. Berak horren aurka ezer egin ezinik, Tokioko milaka gazte zaldiz ibiltzeko botak eta *far-westeko* kapela zuriak, beltzak, marroiak... janzten hasiko ziren. Eta handik ezin amaiera onik atera, ez *cowboy*arentzat ez *kogyaru* neskatilarentzat, neskak ez baitaki ezer bourbonari buruz, ez zaldiak xederaz harrapatzeari buruz, institutua amaitzeko zorian egon arren. Zelan hartu, beraz, holako istorio zoritzarreko baten erantzukizuna?

Fitxategi horretatik irten zezaketen besteak ez ziren askoz zoriontsuagoak izango, eta ez nengoen prest taberna berean ikusitako *cowboya* eta zerbitzaria elkartzeko, euren bizitza arruntari ezin ekarriko baitzien zirrara berezirik elkarketa hark.

Zenbat urte egin behar nuen atzera? Eskola garairaino, bai. Zaletasuna txikitatik izan nuen: jendea-ri begira ipini eta balizko iraganak eta geroak asmatzeari ekin. Inoiz lokartzea ere zail egiteraino, gauez, izaren artean, asmatutako ibilbideei amai bila jarraitzen nuenekoetan. Ez nuen bakerik ezarrita nizkien xede edo irriketan bide argitsuren bat irekitzen nie-neino. Zorionez, ez nuen beti horrela jokutzen. Aita-amei ere noiz edo noiz solasen berba erdiak harrapatu eta istorio zirrargarriak bilatzen nizkien. Zerbitzu

sekretuetan kokatu nituen, ez behin ez bitan. Geroa-
go ekin nion solte zetozkidan ideiak idatzita gorde-
tzeari. Edozein paper zatitan hastapenetan. 14-15 ur-
terekin hartu nuen sistematizazio hura. Ordura arte
sakabanatutakoei heldu, galbahetik pasatu, eta balio-
ren bat bazeukatela irizten banien, fitxa bihurtzen ni-
tuen. Harrezkero buruan bertan ezarri nuen galbahea,
benetan otutzen zaizkidan guztientzat ez baitago le-
kurik! Baina beti izu bera hortik aurrerako bidea gala-
razteko: istorio bati hasiera eman ez gero, amaia ere
eman beharko diozu, txotxo! Andyri ez nion hura de-
na azaldu, zertarako. Nahiko neukan, neuronen arte-
an irristatzen zitzaizkidan gogoetak baino gehiago,
atzamarren artean labaintzen zen ketchup-ziape-
maionesa nahasketa lirdingatsua gerarazten. Ez zen
borroka orekatua, alajaina.

Minnesotan dagoen *mallik* handiena ikusi eta ge-
ro, munduko zenbatgarren postuan dagoen gogoratu
ez arren –oso goian dagoela zalantzarik ez–, *down-
town*era jaitsi ginen: hirigunera, alegia. Orduan ez
neukan batere argi, eta oraindik ere ez oso, hura Min-
neapolis ala Saint James-eko hirigunea zen, ez baine-
kien nire familia berriaren *suburb* delakoa ere bieta-
tik zeinetan zegoen. Hiri bikiak izatearen arazoa.
Edozelan ere, Mississippi mitikoaren zer ertzetan
nengoen ezjakin eta handik Prince ikusi gabe ere,
ikusgarria izan zen, Bilbon ez baitakigu zer den BBVA
bezalakoak eta are zerua estaltzerainokoak diren for-
ma eta kolore ezberdinetako etxe-orratzek inguratuta
ibiltzea. Filmetan bai, ikusita ditugu, baina han egotea
esperientzia zeharo ezberdina da. Tokion ere holako-

ak bazeuden, pilo bat, baina agian han dena ulertzen ez nituen karaktereetan idatzita ikustearen zirrara gailentzen zelako, ahaztuta neukan sentsazio hura. Zenbat istorio ez zen, ba, kristal eta altzairuzko erlauntza hartan ezkutatuko! Hurrengo egunetan Andyren auzunetik ibiliko nintzen, txakurrak paseatzera aterata, baina hango kale hiletatik ez nuen holako pentsamendu bakar bat ere bilduko. Autoak ere apenas mugitzen ziren lorategidun etxe dotore haien artean ezin zen imajinatu bizitza zuen gauza handirik. Etxeen formak bereizten saiatzen baziren ere, guztiari usain prefabrikatu bera zerion: antzeko belartzak, antzeko bidexkak antzeko garajeen ateetaraino, antzeko postontziak, isiltasun bera, mugimendu falta bera. Ez zen zaila zure etxerako bidea huts egitea, ospitaleak baino esterilizatuagoak ziruditen bide haietatik. Dead Kennedys-en *The plastic surgery disasters* LParen atzealdeko argazkia etorri zitzaidan burura, 15-16 urterekin erosi eta lagunaren etxerako bidean lurraren kontra jota puskatu zitzaidana. Zelako ideia hura lekadaz itsatsi eta, orratzaren salto eroak gorabehera zintara pasatzen ahalegintzea, osatu ezin izan genuen zulo txoan orratza trabatu aurretik eskuz altxatzeko pronto. Benetako bizitza, ordea, *downtown* hartan zegoen, eta ezagutzera iritsi ez nintzen ghettoetan ere bai, seguruenik, bizitza horri amaiera ematen zioten tirohots eta guzti, Andyk kontatu zidanez. Izan ere, haren anaia Milwaukeeko ghetto batean bizi zen. Ez edonon gainera: hango kulturaren adierazgarria bide den Milwaukeeko harakina zeritzon *serial killer* ospetsua bizi izan zen bizilekutik lau etxaditara. Anaiaren ghetto

hartara ere egingo genuen agerralditxo bat halako batean, baina hori beste istorio bat da.

Hirigunean, ibili eta ibili, gosetu egin ginen. Hango sukaldaritzaren paradigma osoa ikusteko, beraz, pizzeria batera jo genuen. Andyk zin egin zidan hango kulturaren murgiltzeko prozesuaren azken etapa izango zela. Aurrerantzean etxean hartuko genituen otordu gehienak, emaztea, AEBn oso ohikoa izan ez arren, sukaldari ona zelako; eta neuk ere, jakina, euskaldunok famatu egin gaituen gastronomiaren erakusgai batzuk eskaini gura nizkien.

Coca-cola ertain eta pizza erdi bana azpiletan ipinita, mahai txiki bat aukeratu genuen. Dieta horri jarraituz gero zenbat kilo gizenduko nintzen hasi nintzen pentsatzen, pizza oso gustuko izan arren, kezka.

—Begira, agian beste fitxa baterako materiala sartzen ari da —esan zidan Andyk irribarreka.

Ate aldera begiratu, eta berriro ere dekoratu baten partaide sentitu nintzen, estra bat, behin eta berriz botatzen dizkiguten film horietariko batean: izter erdiaren aldera iristen ziren gona urdin ondo lisatuetan, *cheerleader* talde osoa sartzen ari zen, eskuetan ponpoi hori-urdin eta guzti. Algaraka sartu ziren, eta han biltzen ginen gehienon arretaren jabe bihurtu ziren. Algaragatik baino gehiago, zer esanik ez, *danone* gorputz lirain haiengatik. Ez dakit hangoek *danone* gorputzen berri ote zeukaten. Beharbada, han *light* produktu sorta bukaezinarekin konpontzen zuten, eta hori nahikoa ez zenean, ebakuntza-gelara jo eta kito. Zertarako daude dolarrak, bestela, garaile, *number one*

horietako bat izateko ez bada? AEBn ez dago tokirik bigarrenarentzat, posizio bi besterik ez: irabazlea edo galtzailea, bata eta bestea peto-petoak tokatu zaien zerreginean.

Tropela kaloria dosia eskatzera joan zenean, berriz, deigarriagoa egin zitzaidan zazpi bat urteko neskatilaren begirada liluratua. Dieta desorekatuaren biktima zen, ordea, eta nekez egingo zioten leku perfektioaren gurtzaile haien artean. Neskatilaren ametsak imajinatu eta fitxategian egin nien leku, fitxa berri batean, izozki erraldoia edaten zuen bitartean, adigabe. Ez zen oso azkarra izan behar haren posizioa zein zen asmatzeko.

—Egunen batean bukatu beharko duzu istorioren bat, eta ingelesera itzuli geuk ere irakurtzeko —akuilatu ninduen Andyk, inbidia emateko moduko irribarre potoloaren atzetik. Zirikatzailea izaten ere ondo zekien irribarre hark—. Badakizu, hori dena galdu, eta hemen topatu duzuna ahaztu baino lehenago —bukatu zuen begi keinu batekin.

II
ESTASIEN BILA (1)

PIZZERIAKO KOMUNERA JO ZUEN, lau taldekiderekin batera. Ponpoiak lurrean utzi eta aurpegia freskatu zuen konketan. Aho ertzean irten zitzaion bonatxo txiki bati erreparatu zion ispiluan, eta lore koloretsuz apaindutako azkazalaz haztatu zuen. Tira, oso txikia zen eta disimulatzeko erraza. Betile luzeen makillaje sarriak ez zuen begien itsaso berde sakon horren distira ezkututzen, ispiluaren bitartez zalapartaka zebiltzan kideei lehor zuzentzen zena. Ileko goma ezpainetan hartu eta motots hori luzea birmoldatu zuen, eta berehala erlojuari begiratu zion.

—Zelako titiak atera zaizkidan, jausita ziruditen, atso zahar batenak.

—Lasai, beste honetan primeran ditun, begira.

—E, eta zergatik ditun tontor horiek hain gogor? Dutxa hotza zegoen, ala bururatzen zaidan jokalaria horrekin gogoratzen...?

—Eta ni zelan atera nauzue?

—Hemen zaudete biak, zelako lesbiana bikotea egiten duzuen!

—Hauek ez ditun egunen batean Interneten agertuko, ezta?

—Gura huke, txerritxo horrek!

—Bidaliko dizkigun e-postaz?

—Hau errepikatu behar dinagu, holako lehen argazkia dinat.

—Lasai, ikusiko dun gure aldagelak zein interesgarriak diren, batez ere jokalariren baten bisita dugu-nean...

Inozoak. Zer gauza gutxirekin konformatzen diren. Hauek ez dakite zer den hogeitaka gizon adurra dariela begira izatea, zeure esku sentitzea, mugimendu bakar batez urrutitik isuraraztea. Egunen batean *voyeur.com* edo antzeko batean norbaitek argazkia sartu eta mutilen bat hari begira kanpaika imajinatzea nahikoa dute nahastuta sentitzeko.

—Ez ditun ikusi nahi? Heu ere agertzen haiz batean, atzean dutxatzen.

Laukotea hari begira geratu zen, eta ilegorri batek kamera digitala eskaini zion.

—Ez, eskerrik asko, presaka nabilen, bidaliko didan e-postaz, ok? Bihar arte.

Komuneko atearen atzetik desagertu bezain laster, barruan borobil marmartia osatu zen, luze gabe kameraren pantaila inguruan bildu zena algaraka eta irrikaz.

Ez zuen denbora umekeriatan galtzeko, egia esan zien. Bazekien *cheerleader* taldean ospeak inguratzen zuela, baina berari axola gutxi. Egiaren erdia jakin izan balute... Kideentzat eguneko unerik kilikagarriena zena berarentzat berotze saio txiki bat besterik ez

zen. Entrenamendua, sasoiari eusteko. Kideek ez zuten inoiz ulertuko zergatik zen *cheerleader*, futbol jokalaria bakar batengan ere interesik ez bazuen. Barkatzen ez ziotena, ordea, agertu orduko begi gehienak haren mugimenduei josita geratzea zen. Jokalari guztien iradokizunei muzin egiten zielako, hain zuzen ere, eta edozein neskak jakin behar zuen erronka gogorra baino hoberik ez dagoela mutilen gosea bizia-gotzeko. Ironikoena zen berak ez zuela horregatik egiten; benetan bost axola zion partidetara biltzen ziren guztiek berarekin zer nahi zuten. Berak bazeukan bere ikuslea, benetan ardura zitzaizkionak, eta hori zaintzen zuen mimo handiz, astean behin baino ez bazen ere.

Ostiral hartan horrelako gaua zuen zain. Hamargarrena, bere benetako bokazioa –eta diru iturri ederra– topatu zuenetik. Ez zituen bereziki prestatzen, ez zuen behar. Zerbait naturala zen, berari baino begiratzen ez zioten argi horien pean, aretoaren iluntasunetik iristen zitzaion ke artean agertzen zen bakoitzean berez pizten zitzaiona. Hamar saio, eta ikusle ezin fidelagoak zituen. Gauero egin izan balu ere, gauero izango zituzkeen denak han, baina berak nahiago zuen dosifikatu, sei egunez irrikari eutsiz utzi miresle tropel hura. Bere arrakastaren funtsa beti zerbait ezberdina eskaintzea zen, espero ez zutena eta espero ez zutenean. Begi oihan baten aurrean biluztea edonork egin zezakeen, baina berak benetako haragiaren usaina eskaintzen zien, partaide, kide, lagun bihurtzen zituen, eta edariari heltzeko ere ez zituzten begiak bere azal distiratsutik aldentzen.

Unibertsitateko mutilek aukerarik ez zutela uste zutenak oso oker zeuden, han fakultateko batzuk ere biltzen baitziren, haien artean futbol taldeko hiru. Oso ondo gogoratzen zuen haietariko bakoitzaren aurpegia, oihalaren atzetik bera lehen aldiz agertzen ikusi zutenean. Mementoz, haietariko bati eman zion bere edabea dastatzeko aukera, eta horrela besteek ere jakin zuten saria tokatzeko bidea zein izan zitekeen. Hala ere, hitzik gabeko akordio moduko bat zegoen, eta tantaka bezala aurpegi ezagunak ugaritzen joan arren, bere benetako bizitzaren sekretuak ez zituen zeharkatu fakultateko hormak. Unibertsitatean, bere gauetariko baten partaide izandakoen artean ere, neska distiratsu baina urrun eta eskuragaitz hura besterik ez zen bera.

Logelara itzulita, beraz, irteteko apaintzen hasi zen, gelakidearen begirada konplizearen pean. Bai, Annek ere bazekien, berak ere ikusia zuen, gizonak ez baitziren emanaldiez gozaten zuten bakarrak. Ann ez zen gauero joaten, baina berak susmatzen zuen agertzen zen aldiro itxaropen izpi batez jesaritzen zela. Batek jakin, orain arte neska bakarra zeukan oholtzara igota, eta gorputzak eskatzen bazion, agian Ann ere igoko zuen egunen batean. Bera ere behin baino gehiagotan berotu zen Annek logelara mutilen bat ekarri zuenean. Beharbada, bera ondoko ohean lo zegoela jakinda, mutil horiek eta Ann bera beregan pentsatzen sentitu zituelako.

Ikasle-egoitzako aparkalekutik auto zaharra atera eta milaka bizitza ezkutu argitzen zituzten distira koloretsuetan murgildu zen. Ederragoa zen hiria iza-

rren teilatupean, neoiek *downtowna* bera beste zeru beltz izartsu bihurtzen zutenean. Beste modu batean hartzen zuen arnasa, arnasa sakonago eta benetakoagoa. Kristalezko munstro horien artean eguneko biztanleek mozorroak erantzi eta egiazko izaera agertzen zuten. Edo bestea bezain gezurrezkoa, baina norberaren neurrira egindako gezurra. Han mugitzen zirenak ez ziren bulegari-inurriak, erloju erraldoi bat lepotik zintzilik inork zehaztutako bideak egi-ten; gogoak edo senak agindu ahala mailakatu barik aurkeztuko zituzten kobazuloetara abiatzen ziren itzal askeak ziren. Eguzkiak bere legea berriro ezarri arte, izenak ere ahaztuko ziren eta azalak adierazten zuena baino ez ziren izango. Mozorroa berriro janzteko orduan ez zuten elkar ezagutuko, gaueko gertae-
rak neoiekin batera loak hartuta.

Gurdia klubaren atzeko kale ezkutuan utzi eta burdinazko atetxotik sartu zen. Hamabost minutu ispilu aurrean nahikoak izango ziren mahaietako iluntasunean espero zuten erregina izateko. Argi indartsuak oihal beltzean margotutako borobiletik agertzeko orduan, ostiralero magia errepikatuko zen: Markek aukeratutako musika aretoaz nagusituko zen, begi guztiak borobil horri adi. Berak ere lehen aldiz entzungo zuen musika, barneratu eta gorputza haren kulkara moldatu. Horrela zuten adostuta: berak ez zuen inoiz jakingo zer musika ipiniko zuen. Baina Markek primerako sena zeukan bete-betea asmatzeko. Horren arabera, izterra izango zen agertzen lehena, edo atzamar jostariak, edo bularraren perfila... Hurrengo urratsak sortzen zion berari zirrarak handiena:

bildutako ikusleekin topo egitea. Ilunpean egon arren, ondo bereizten zituen aurpegiak, banan-banan aztertzen zituen, zer irrika, zer itxaropen, zer distira zerien jabetzeko. Aurpegi ezagunen artean berriren bati antzemango zion, huts egindako baten bati ere bai. Ikusleek bere azterketa geldo baina zorrotza sentitzen zuten, eta lehenengo izerdiek, ezinegonek, arnasa eutsiek uhin magnetikoz beteko zuten giroa. Aurrerantzean ezinezkoa zen asmatzea zer etorriko zen, berak ere ez baitzekien.

Gau horretarako ileorde berdea aukeratua zuen. Bere urrezko adats luzea ezkutatzen zuen lehen aldia zen, eta horrek berehala izan zuen eragina ikusleengan. Aurpegi berriak birpasatu zituen. Kontxo, irakasle bat datorren lehen aldia. Ekonomiakoa. Arbel aurrean baino izerdi gehiago botatzen ari da. Hik, orde, entrenamendu oso txarra egin duk gaur, badakik ezin duala honetaz pentsatu hemen oina ipini arte. Aitzakia asmatzen Heleni azaltzeko zergatik ezin zenuen gaur elkarrekin afaldu? Mutil gaiztoa gero. Eta neska hura? Ez dago txarto, baina deseroso dirudi. Hona aterako banu ez luke bizitza osoan ahaztuko. Begiratu hona, ez galdu detailerik, azkenean gustatuko zaizu-eta. Ile ederra du. Oholtza erdiko barrari buelta osoa emanda, bizkarrezurra bermatu zuen altzairu hotzean; ehun finaren azpian ditiburuak gogortzen ari zitzaizkiola sumatu zuen. Bazekien zer egingo zuen gau hartan. Ez zer, zehazki, baina bai no-rekin. Musikarekin batera mugitu eta katuka hasi zen; ibiltokiaren bukaeran jesarri eta, soinekoa astiro jaisten hasi zen. Ehun zuriak besoetatik behera egin

zuen labain, gerriraino. Begiak bularretako urdinean igarri zituen lorez lore, erle saltarien moduan, ezti bila. Ukitu naif hark liluratu zituen. Begi batzuek lore nagusiaren erliebezko pistiloan laztan egin zioten, eta erliebea areagotu. Zutitu eta jantziak orkatiletarainoko bidea egin zuen; zilbor azpian lorategi txiki berria agertu zen. Argien koloreek dantza egiten zuten azaletik. Ez zuen distira emateko ezer jarri, distira bakarra laster isuriko zuen benetako izerdiarena izatea gura zuen, baina, mementoz, azal leunak korapilatzen zituen desioak, ume batena zirudiena bilo fin ikusezinean.

Bere burua besarkatu, eta, neskatila babesgabearen itxuraz, mahaietarantz jo zuen, aterpe bila. Ikusleen begiradek lotsaraziko balute bezala, bularrak eta hankarte estaltzen zituen. Begirada errukiorrez trago bat eskatu zion gizon gorbatadun bati, berbarik gabe. Gizonak berehala bilatu zuen ezpaineak utzitako marrazkia handik edateko, zintzurra bat-batean idor. Argien arduradunek trebezia handiz lortzen zuten haren mugimenduei jarraitzea. Lehenago ikusitako neskaren ondotik igaro, eskua haren kokotsetik laztankiro pasatu, eta irakaslearen mahairaino joan zen. Klub osoak arnasari eusten zion, txistua irenstera ere ausartu barik. Irakaslea ezustean harrapatu zuen dantzariak eskaini zion aiztoak. Eskuan geratu zitzaion tresnari begiratu, bere izterrean jesarrita neskak eskaintzen zion katu sorbaldari gero, eta azkenean ulertu egin zuen. Ile berdearen distirek zirkulu geldoak egiten zituzten bitartean, bularretakoari eusten zion zatitxoari heldu eta moztu egin zuen. Neskak aurre-

rantz jauzi egin, ehun zatia bularren kontra gogor es-
tutu, eta ikaratuta bezala egin zuen ihes. Luze gabe,
senarrarekin batera ikuskizunaz gozaten ari zen
emakumearen edalontziaren inguruan geratu ziren
loretxoak.

Ikusleak bertatik bertara sentitzea maite zuen.
Askotan, dantza horietan erabakitzen zuen emanal-
diaren muina zein izango zen. Inoiz, mahai batetik
bestera igaroz, ikusleen hankarteak zituen haztatuak,
gaur zakil handiena hautatuz, bihar txikiena, etzi or-
dura arte altxatu barik zirauena. Beste batzuetan, zer-
bait xuxurlarazten zien, ahotsaren arabera aukeratze-
ko. Halakoetan, ordea, ez zuen inoiz topatzen bila
zebilena: frantsesez ahoskatuko zuena. Sekula en-
tzun gabe zeukan, baina zerbaitek ziotson ahoskera
hori entzuterakoan bertan urtuko zela.

Ibiltokira itzulita, barrari helduta geratu zen, ho-
nek titi biluzi berriak ostendu behar balitu bezala. Be-
soak zabaldu eta argi zuriak borobil oparo haiek es-
kaini zituen, altzairua besarkatuz. Orduan, neskaren
begiak ikusle batengan iltzatu ziren. Hasieratik auke-
ratuta zegoenak zurrutada luze batez irentsi zuen ga-
ragardoa. Ezinezkoa zen, bera miresle hutsa zen, ikus-
lea, itxaropenik gabea. Neskaren jolasean, ordea, lelo
zaharra betetzen zen: itxaropena galtzen den azkena.
Askoz lehenago galduko zuten askok lotsa.

Ikusi zuenetik jakin zuen berak gau hura noren-
tzat izango zen. Han zeukan, lehenengo emanalditik
gauero, txakurtxo bat bezain zintzoa. Behin ere ez zi-
tzaion asko gerturatu, baina bazekien ez zuela horren
beharrik izan behin baino gehiagotan praka barruan

isurtzeko, begiei eskaintzen zitzaizkien jolasekin guztiz bat eginda. Odolosteak bezalako atzamarrak koipe eta izerdizko mapa zeukan kamiseta gris hartan lehortu zituen. Oholtzatik seinlatu eta mila promesa egiten zuen atzamar hark gerturatzeko keinua egin zionean, kostatu zitzaion berari zuzendua zela sinestea. Hala ere, aulkia desagerrarazten zuen haragi guztia altxatu eta herabe ibili zen harantz, argi itsugarri batek bustita. Orain berarengan zeuden josita begi guztiak. Baina han inork ez zuen txalotzen, ez txutxu-mutxurik egiten. Jendeak, atea zeharkatzen zuenetik, barruan gertatzen zena onartu eta bizi besterik ez zuen egiten.

Oholtzaraino iritsita, belauniko jarrarazi zuen. Han zegoen, eliztarra aldarean bere jainkosa gurtzeko prest. Neskak geratzen zen lorategitxoan estutu zion burua. Inoiz usaindu gabeko loreak sentitu zituen sudurra kilikatzen. Agindu mutuei otzan, hortzetan ehun finaren ertzari heldu eta beherantz egin zuen. Haragi tinko berria joan zen agertzen liluraturiko ikusleen begi aurrean. Ordurako lehenengo tantatxoek, diamante ñimiñoen antzo, desiozko distirak barreiatzen zituzten. Partaide berriak sabelak uzten zion neurriraino etzan behar izan zuen, kuleroa orpoetaraino eramateko. Botatako izerdiak kamisetaren kolorea unformatu zion. Belauniko jartzea lortu zueanean, berak erantziriko ehuna sentitu zuen berriz, neskak aurpegitik pasatuta. Bigarrenez kokotean jarri zion eskua, atal askatu berrirantz erakarriz. Lerro zuzen estua osatzen zuten kizkurren kilima nabaritu zuen muturrean. Ez zen begiak irekitzera ausartzen,

baina bere zortea noraino irits zitekeen probatu guran, ahoa zabaldu eta mihia luzatu zuen, biloaren artean gune hezea topatu arte. Ikara batek dantzarazi zuen neskaren gorputza, goitik behera. Ausardia onartzen zitzaioa ulertu arren, ezin begiak ireki eta paisaia desiratuaz gozatu, kizkurtxoak betileetan korapilatzen baitzitzaizkion. Beraz, filmetan hainbestetan ikusitako lore biziak gogoan hartuz, txipiroia baino potoloagoa zuen mihiaz zeharkatzen ari zen atea irudikatzen ahalegindu zen. Ez zekien, ordea, sumatzen zen hura botoitxo magikoa ote zen. Zapore mi-katz baina gozoa ahoratu zitzaion, eta prest sentitu zen hura dastatzen jarraitzearen truk bertan itotzeko ere, arnasa hartzea kostatzen zitzaion-eta.

Ikuskizunak aurrera egin zuen, eta bere zorte ona mila aldiz bedeinkatu arren, amaiera hurbiltzen zela jabetu ahala, mina joan zen bihotzaren jabe egiten. Hasi zen ulertzen bizitzen ari zena bukatu bezain laster inoiz baino urrunago izango zuela azal hura berriro laztantzeko aukera. Nekez errepikatzen zuen ikuskizuna bere jainkosak. Burua ahal zuen guztia estutu zuen, azken minutuak ondo barneratzeko, sukaldeko egunerokotasunera itzulita ere, irudimenean nahi bestetan berpiztu ahal izateko zeruan emandako ordu hura. Sakon zizelkatuta geratu zitzaion, beraz, marmeladazko ezpain haietatik zakila atera eta barruan gordetzen zuen guztia harria baino gogorragoak eta bere sukaldea baino bero eta lurrintsuagoak ziren bul-lar distiratsu haietatik isuri zuen unea. Aurrerantzean, ostiralero gogoratuko zuen behin bera egon zela sumendi gori haren eskuetan.

Dantzariak zutitu eta masaje itxurako mugimenduez likido lirdingatsua nahastu zuen blaitzen zuen izerdiarekin. Berarentzat ere hura zen memento go-rena, izterretan dardara zuela, berea ikusezina izan arren, atseginaren gailurrak gainezka egiten baitzion.

Gaueko partaidea bertan janzten utzita, inguruan zituen jantziaren zatiak batu eta, musuak ikusleei bidalita, oihalaren atzean desagertu zen. Beste esperientzia gogoangarri bat bildumarako. Hankartean behera zerion marea soinekoaz lehortu eta kamerinoan sartu zen. Itzela izan zen, itzela zen horretan ziharduen minutu bakoitza. Horretara ez zuen mugatu nahi, ordea. Bere ametsa ez zen klub hartan hiltzen. Askotan barre-garria zela pentsatu arren, bere ametsa egunkarietako lehen orrian agertzea zen eta, ez zekien ondo zelan, bai-na Guinness errekor batean parte hartzea ere bai. Hori zen barre-garria, egunkari baten lehen orrian agertzeari ez baitzeritzon hain zaila. Baina errekorrena ez zekien zertara zetorren, ez zerena izan zitekeen. Hala ere, txikitatik zeukan ametsetan guztiz errotuta. Bestalde, pozoia bat bezala bere gogoaz jabetzen zen zaletasun horri bide berriak bilatu behar zizkion. Ezin gera zitekeen Minneapolisen betiko, mundua ezagutu behar zuen eta, batez ere, munduak ezagutu behar zuen bera. Paris zen; norbaitek Eiffel dorrearen punta bularrean iltzatu balio bezala, magnetismo indartsuz deitzen zion.

Dutxatik irtenda, ohikoak ziren lore sortak, bonboiak eta antzekoak topatu zituen. Banan-banan irakurtzen zituen gutun-azaltxoetan ezkututzen ziren adierazpenak, ohiturari jarraituz denak sinatu barik iristen ziren arren.

Kamiseta berdea eta bakeroak jantzita, klubeko barrara abiatu zen. Hura zen emanaldiaren bigarren zatia: eguneroko itxurarekin, beste bezero bat balitz bezala, kubatatxo bat hartzea. Ikusle gehien-gehienek bertan jarraitzen zuten, eta bazekien haiei ere gustatzen zitzaie la bera berriro ikustea, euren artean naturaltasun osoz edukitzea. Ikusleak ere normaltasunez jokutzen saiatzen ziren, eta begiratu ezkuak egin arren, bakea ematen zioten. Bera klubeko lagun bartzuekin biltzen zen eta ez zuten inoiz emanaldiaz hitz egiten. Dantzaria oihalaren atzean hiltzen zen; hurrengo ostiralean berpiztuko zen. Hala ere, berari ere oso gustatzen zitzaion nortzuk geratzen ziren ikustea, haien aurpegietan aurreko tentsioaren ondoko lasaitasuna nabaritzea. Begira, neska berria fakultateko lagun batekin etorri da. Edalontzia altxatu eta fakultateko kidea agurtu zuen, taberna berean kasualitatez elkar ikusi balute bezala. Ann ere beste mahai batean zegoen, eta edaria hartuta barraraino hurbildu zitzaion. Pare bat kopa eta elkarrekin itzuliko ziren, Annek ez baitzeukan gurdirik. Bihar larunbata, eguerdia arte lo egiteko eguna...

EZ NEUKAN POZIK SENTITZEKO arrazoi handirik. Herri hark, berez, ez ninduen lar erakartzen. Hamaikagarrren aldiz esan nion neure buruari hegazkin okerra hartu nuela. Mexikon, Guatemalan edo Bolivian egon behar nukeen. Baina, zoritxarrez, urte hartan handik ibilitako lagunak etxera itzuliak ziren. Minneapolisen neukan, beraz, Ameriketara joateko aukera bakarra. Alicjak gonbidatu ninduenean, itxaropen izpitxo bat piztu zitzaidan: agian, han ere indiar kultura topa zitekeen, eta hango indiarrek ere edukiko zuten maskara interesgarriak. Hori behar nuen inora mugitu ahal izateko, gonbidapen bat, umeei etxean ematen nizkien eskoletatik nekez aterako nuen aterpetxerik merkeena ere ordaintzeko dirua. Uda hartan, ikasturtean egindako itzulpen lan batzuekin lortutakoa neukan hegazkina ordaindu ahal izateko. Han nengoen, beraz, Poloniako udarekin zerikusi gutxi zeukan bero itogarri hartan murgilduta.

Alicja ere saiatu zen nire bilaketan laguntzen, baina bost egun haietan, amerikarrak euren jatorriz-

ko kulturaz ere zein ezjakinak diren egiaztatzeaz gain, txunditurik, ez nuen aztarnarik idoro indiar kulturaz, are gutxiago jakin maskararik egiten zutenetz. Egun gutxi geneukan, udaren hasierarekin batera, berehala ikasturtearen amaiera iritsiko baitzen han ere, eta Alicja eta biok elkarrekin itzuliko ginen Poloniara. Vodka behar nuen, berdin poloniarra, errusiarra, edo bertan egina izan.

Hori lortzea askoz errazagoa izan zen. Alicjak, vodkaz gain, zerbait berezia agindu zidan, eta han nengoen, areto ilun batean, vodka eta laranja nahastean igerian zebiltzan izotzak dantzarazten mahai borobilean. Lagunak ez zidan aurreratu zertan joan ginen hara, eta txundituta geratu nintzen argi zuri handiak agertoki modukoaren atzeko oihal beltza argitu eta handik neska hura agertu zenean. Seguruenik, han biltzen ziren amerikarrek, maskaragileak izan balira, harena egingo zuten sexuaren jainkosaren ikur. Begiradei, irribarrei, mugimendu bakoitzari inoiz ikusi ez bezalako erotismoa zerien. Baina, *strip-tease* emanaldi bat ikustera eraman ninduen nire lagunak? Zur eta lur nengoen. Inguruko guztien pentsamenduen gainetik neska harenganaino ibil zitekeela sentitu nuen, hain ziren trinkoak. Han zeuden guztientzat mundu osoa argipean mugitzen zen gorputz hartan biltzen zen. Nik, ordea, ez nekien zer demontre egiten nuen han. Alicjari itaundu gura nion, baina begiratu nionean, berak ez ninduela ikusten igarri nion. Vodka erdia edan nuen, hortaz, kolpe batez.

Neure buruarekin zintzo eta betidanik edertasunaren miresle, aitortu behar izan nuen begiak ikuski-

zunarekin gozatzen hasiak zirela, eta apurka-apurka, azalaren poro guztiak joan ziren dantza hari lotzen. Batez ere, han geundenok aztertzen hasi zenean, segundo batzuk eskaini zizkidanetik. Bere gorputzaren mintzoa sumatu nuen, ozenki. Ez, ez nintzen ni izango handik altxatu eta alde egingo zuena. Maskararik ezean, han neukan jainkosa mitiko bat gorputzuta, bildumarako eramán ezingo banuen ere.

Inoiz ez bezalako ikuskizuna izan zen hura, benetakoa, buruz buru izandako edozein sexu esperientzia bezain asegarria. Pentsamenduok lotsarazi ninduten, baina handik kanpo egon ginenean baino ez. Iraun zuen bitartean, ahalkearentzat ez zegoen lekurik.

Dena bezala, hura ere amaitu egin zen, eta denbora neurtezinean burua bete zigun pertsona bakarra berriro agertu zenean, bigarren ez txunditu nintzen. Aurreko guztia esna bizi izandako ametsa izan balitz bezala, han zegoen gure dantzaria: beste neska arrunt bat trago bat hartzen. Alicjak edalontziaz agurtu zuen. Gero jakin nuen fakultateko ikaskidea zuela.

Lotegira itzuli ginenean, berriz, arazoak lehengoan zirauen. Buruko zurrunbiloak ez zidan ezkututzen alferrik nengoela AEBn. Biharamunean, gainera, buruko min iturri bikoitza izango nuen. Alicjak azken azterketa prestatu behar zuen, eta orduak liburutegiaren eta kafetegiaren artean ematen eduki ninduen horrek. Hormetan ikusten nituen kartel eta oharrek ez ninduten askorik entretenitzen.

Kasualitateak nahi izan zuen kafetegian Dakotako mutil harekin topo egitea. Berak esan zidan bere hi-

rian, Bismarcken, Indiar Museoa zegoela. Are gehiago, etxera itzuli aurretik, azterketak bukatuta, bere etxera gonbidatu gintuen Alicja eta biok. Zerutik bidalitako aingerua izan zen Bill hura.

Nire jaioterria baino are lauagoak ziren kilometro amaigabeak egin genituen hurrengo ostegunean, Alicjak bere azken azterketa bukatu eta berehala irtenda. Minnesota zuhaitz artean ezkututzen ziren basetxeek ziprztindutako alfonbra berdea zen eta, Ipar Dakota, sasoi hartan, gariak urrez estalitako lautada mugagabea zen. Red Hot Chilly Peppers eta Limp Bizkiten doinu artean egin genuen bide luze hura, filmetan baino ikusita ez neuzkan kamioi mutur-luze andana handi bat atzean utziz. Han dena neurritz kanpoko balitz bezala, begiek harrapatzen zuten lerro osoa betetzen zuen tren bat ere ikusi genuen, gari zelaietan ipinitako kilometroetako hesi bat bezalako.

Azkenean, Bismarck-era iritsi ginen. Etxe Zuriarekin zerikusi gutxi duen Kapitolioaren ondoan, Indiarren Museoa. Argi zegoen benetan jeneral izatera inoiz iritsi ez zen Caster ezjakina botak jantzita hil zen lurraldean, indiarrek garrantzia zeukatela, aztarna folkloriko bezala baino ez bazen ere. Museoari bere interesa ukatu barik, ordea, handik ezin atera indiarrek maskarak zituztenetz. Zalditeriaren zazpigarren mitikoaren gotorlekutik, Missouri oinetan, erraza zen azalzurien eta azal-gorrien arteko borrokak irudikatzea. Baina handik ere ezin ezer garbirik atera.

Ezin genuen hango egonaldia asko luzatu, hegazkina Minneapolisen hartu behar genuen-eta. Egun biren ostean, beraz, gurdian berriro sartu eta atzera egin

genuen bidea. Paisaia berak orain etsipenez agertzen zitzaizkidan. Billek, berriz, ez zuen amore eman nahi, eta historikoa ei zen Jamestown-en gelditzea erabaki zuen. Garai zaharretako herrixka berreraikitzen zuen dekoratutik ibili ginen, eta kartoi usaina zerion toki hartan, bufalo erraldoi baten oinetan argazkiak egin eta gero, indiarren sinesmen zaharren partaide bihurtu nintzen: hesi baten atzean adi begiratuta, hara non agertu zitzaigun bisonte zuri mitikoa! Agian ikuste hark ez zuen indiar guztien berrelkartzea ekarriko, baina niri zorte ukazina ekarri zidan. Gurdirako bidean, jantzi moderno baina higituetan freskagarriak saltzen zituen indiar zahar bati hurbildu gintzaizkion, Alicja eta biok coca-cola bana eta Bill Dew Mountain bat eskatzera. Zirt edo zart, bertan galdetu nion gizonari indiar oroigarriak erosteko tokirik ezagutzen zuen. Azken finean, ikusten nuen benetako lehen indiarra nuen aurrean! Ez dakit sioux, cheyenne edo zeinen ondorengoak ziren hangoak. Argi neukan Bismarck inguruan ezagututako mandan haienak ez zirela, haiek guztiz desagertu ziren-eta.

Indiar zahar haren atzean denda txiki batera iritsi ginen. Indiar jabe gazteari gutaz hitz egin, eta bidean utzitako bere freskagarrietara itzuli zen. Denda hartan, hauts zelai baten azpian, uztaiak, pipak, danborrak, aizkorak, ezkutuak eta beste makina bat gauza bitxi zeuden. Bila nenbilenarekin zerikusia zuten objektu bakarrak, ordea, zurezko totemak ziren. Baina, esangura gorabehera, totemak eta maskarak ez dira gauza bera. Begiak amore ematen hasiak ikusi zizkidanean, zer nahi nuen galdetu zidan. Maskara

bat, zer bestela. Gizonak burua estutu zuen, eta azkenean bazter bateko kutxen artean bat ireki eta bai, maskara bat atera zuen!

Ez zen zaila asmatzea hegazti baten aurpegia adierazten zuela. Arranoa, pentsatu nuen. Arranoa beti izan baita miresmena sortu duen hegaztia, baina ez nekien askorik indiarren sinesmenei buruz; beraz, beste edozein hegazti izan zitekeen.

Koadernotxo bat atera nuen nire poltsatik: maskarak zer adierazten zuen jakin behar nuen. Indiarren aurpegi serioak ezezko keinua egin zuen, baina erantzunaren orde, kutxara itzuli eta beste zer-bait atera zuen: paper beilegitu bat. Zabaldu gabe luzatu zidan. Argi zegoen beste aukerarik ez nuela izango, eta nire poltsikoarentzat gehiegizkoak ziren hirurogei dolarrak eman nizkion trukean. Billek aurreratu zidan han ez zegoela prezioa adosterik: onartu ala utzi.

Gurdirako bidean ume jaioberria baino estuago besarkatu nuen egunkari paperetan bildutako nire altxor berria. Azkenean bere fruitua eman zidan AEBRA egindako txangoak! Behin atzean jesarrita maskara berriro begi aurrean ipini, eta papera zabaldu nuen. Egia esan, gehiago espero nuen: ospakizunetan erabiltzen zela, arranoa irudikatzen zuela (horretan asmatu nuen), eta arranoa izakirik boteretsuena zela. Ez zuen aipatzen zer triburena zen; mendebaldeko kostaldekoa zela, besterik ez. Horrek ilusio pitin bat kendu zidan, argi baitzegoen ez zeukala zerikusi handirik inguru haietako indiarrekin. Baina tira, kolore politak zituen eta maskara bat zen, azken finean.

Hango egunak amaituta, Polonian nengoen berriro. Onartu behar: nire jaioterria ez da maskarak lortzeko tokirik aproposena. Hortaz, normaltasunera itzuli eta unibertsitatean geratzen zitzaidan azken urteari aurre egin behar. Nire maskara bilduma urriari noizean behin begiratzen nion: lau baino ez nire logelako horma batean eskegita. Meritu gutxiko lorpenak, gainera, Dakotan erositakoa kenduta, beste hiruak, nire zaletasun hura piztu zutenak, opariak izan baitziren: osabak Mexikotik ekarria bat, lehengusinak Kenyatik ekarria bestea, ia izeko dudan amaren lagun batek Dominikar Errepublikatik ekarria hiru-garrena. Neuk lortuak izan zein ez, gehiago eskatzen zidaten. Azpegi haietan zerbait mistikoa begitantzen zitzaidan, eta gozatu egiten nuen xehetasun txikienei ere astiro erreparatzen. Ekintza ia erotikoa zen maskarei so egotea. Gutxiegi ziren artean, ordea. Zenbat maskara ez ote zegoen munduan, nire begien oniritziaren zain. Erlikebeek, margoek, antzinako oihartzunak zekartzaten esanahi gordeek eman ohi ez zitzaien arreta eskatzen zidaten, xuxurla. Nire logelako hormetan, non egongo ziren hobeto. Lasai, politik, laster ekarriko dizuet lagun gehiago. Txikitan kataloek beldurra ematen zidaten. Urtebetetze egunen batean han hasiko ziren lehengusu-lehengusinak haiek janzen, eta ni negar batean. Are gehiago lehengusina krudelak niri ezkututzen zidanean aurpegia kartoi izugarri haietako baten atzean. Haiek ziren aldarriak, kentzen zidaten arte. Inozoa ni. Hargatik, gainditu egin nuen; inauteriak, mozorrotzea maitatzen ikasi ere bai. Eta begira negarti txiki hura nora

zen iritsia. Nork esango zidan lotura ia erlijiosoa erdietsiko nuela katamalookin.

Azken ikasturte hartan, pasio berri hari irteera eman ziezaiokeen bidea bilatu behar nuen. Ez nion etorkizun bereziki zirrarragarririk ikusten nire ikaske-tek eskaintzen zidatenari: ezusterik gabeko lanbidea eskolaren batean, hizkuntza irakasten, eta bidaiak egi-teko aukera gutxi. Eta azken ideia hori ezin eraman nezakeen; eulitzar gogaikarri batek bezala, etengabe egiten zidan eraso. Banekien, gerturatzen zenean uxatuz, behi baten buztanak baino emaitza hoberik ez nuela lortuko, minutu erdira berriro egongo zelako ipurdian itsatsita. Apiriletik aurrera, gero eta mehatxu handiagoa zen uda: oporrak eta dirurik ez inora joateko, etxean geratu behar, mundutik milaka maskara paseatzen ziren bitartean, lotsabako.

Kasualitatea izango zen, berriro ere, nire aliatua. Egunkaria irakurtzea ez da inoiz izan nire zaletasunik handiena, eta, gainera, lan iragarkiak topatzen nintuen bakoitzean curriculumak eta aurkezpen eskutitzak prestatzen hasi behar nuela gogoratzen nintzen. Baina, halako batean, Mugarik Gabeko Irakasleen iragarki bat topatu nuen: irakasleak behar zituzten Asian! Ezinbestekoa ingelesa, ezin hobeto menderatzen nuena. Asian! Zenbat maskara ez zen Asian egongo! Mementoz Amerika eta Afrikakoak zeuden hormatik niri begira, eta haiek ere adierazi zidaten zirt edo zart egin behar nuela, asiar kide bat eskertuko zidatelako. Hori da maskarek duten bertuteetariko bat: guztiz integratzaileak dira eta beste kulturekin nahastea maite dute. Jakina, gustatzen zaie euren ki-

de zaharrekin elkartzea, askotan alargun uzten ditugulako, senarra edo emaztea jatorrizko herrian lagata, edo umezurtz, edo lagun edo areriorik gabe; eta haiek ere, mundu guztiak bezala, aurpegi ezagunak behar dituzte inguruan. Baina, hala ere, ohituta daude eta, haien ordeztuz, gustura onartzen dituzte lagun berriak, erlijioa, langai mota, koloreak edo maila kon-tuan hartu barik. Arranoa, adibidez, poz-pezik zegoen dominikar andreak buruan zeukan arrainarekin, eta ez zen inoiz hura jaten saiatu, edo gutxien, gainera ezagutzen zuelako mundua.

Premia benetakoa bide zen, abuzturako Varsovia-ko aireportuan bainengoen, Frankfurtetik igarota Bangkokera bidean. Thailandia tokatu zitzaidan, baina ohartarazi zidaten mugikortasun handiko lana izan ohi zela, beharren arabera etengabe moldatzen zena. Traba izan zitekeelakoan azaldu zidaten, baina zer hobe niretzat Asiako herri batetik bestera mugitu ahal izatea baino?

2000. urteko abuztuaren zati ipini nuen oina Asian, lehen aldiz. Erakundekoek, lehen egunean, txango turistikoa antolatu ziguten hara hegan egin genuen hiruroi. Lanean hasi baino lehen, ingurua ezagutu behar. Gainera, ekialdeko herririka batean zegoen eskola, eta Bangkok bisitatzeko aukera gutxi edukiko genuen behin hara joanda.

Bangkok... Zaila hura deskribatzea, ezinezkoa ez esateagatik. Zelan azaldu kaosik nahasgarrienean edertasunik mirezgarriena topa daitekeela? Zelan ulertu estresa kroniko bihurtzeko egina dirudien hiri erraldoi batean aurpegiarik lasaienak, irribarretsuenak

topa daitezkeela? Kutsadura murtxika daitekeen kaletan, motorren eta tuk-tuk-en zarata gorgarrien artean, zentzumen guztiekin gozatzeko aukera dagoela ezin sinets. Baina halakoa zen, kontraesanez betea, bizioz eta bertutez gainezka. Chinatownen lore eta lapiko gozoen usainen artean ibiltzeak ez du parekorik, dena, den-dena salgai dagoen hirian, saltzaileak gaintetik kentzea nekagarria gertatzeraino.

Eta zer esan maskarei buruz! Dozenaka zeuden dendetan eskegita, kolore eta neurri guztietakoak! Eta han nengoen ni, lehenengo egunean, aurrerantzean tenplu guztiak zaintzen topatuko nuen aurpegi letagin-luze gorri hari begira, plastikozko mahai txiki batera jesarrita, sojazko fideo zoragarriak jaten, taxi eta motorrak zentimetro gutxira pasatzen, ia sorbalda ukitzen, sentitzen nituen bitartean. Bihotzak bularretik irten behar zidan; inpresio gehiegi ziren, denak batera neureganatu ahal izateko. Nire kideak, ordea, zentratuegi zeuden platerako zapore berriak bereganatzen, maskara liluragarri haren garrantzia ulertzeko. Hortaz, ondoko mahaian zegoen gizon bakartiari erakutsi nion, poza adierazteko behar hark bultzatuta. Berak ere ingurua barneratzera emana zirudien, begi argi haietan kaleko mugimendu etengabe hura grabatu nahi balu bezala, betiko. Turista peto-petoa zirudien, eta gizonezkoa eta bidaiia-lagunik gabea izanda, seguruenik ni baino hobeto iritsiko zen hango gauak eskaintzen zituen aukera guztiak ezagutzera. Berak edalontzia altxatu eta agurra itzuli zidan, irribarre lasai batez.

Diru apur bat aurreratu bezain laster, aurpegi berdeko bikotea erosi behar nion nire lagun berriari,

argi baitzegoen, udaltzainak bezala, haiek ez zirela inoiz bakarka joaten. Gizakiak, irudimena dauka, gero, jainkoak, deabruak, izpirituak, jeinuak eta horiek guztiak asmatzeko, eta haien irudien atzean bere beldurak ezkutatzeko. Non ote zegoen maskaren jatorri antropologikoa; inork ba ote zekien?